

Proiektuaren deskribapena

Gure enpresak aterkiak eskaintzen ditu, baina ez edozein motako aterkiak, gure aterkiak besteak baina erresistenteagoak eta aterkiaren luzera norberaren nahiaren arabera izango da.

Aterki hauek zutik egoteko aukera izango dute, hau izango da ezaugarri bereizgarriena (euskarria karbonozkoa pisu gutxi eduki dezan eta honez gain, estaltzeko tela ekologikoa).

Bezeroak, adin guztietako pertsonak izango dira, hortaz, mota askotariko diseinuak egongo dira eskuragarri.

Balorezko proposamena

Argi dago produktu batek gaur egungo merkatuan lehiatu ahal izateko hainbat ezaugarri izan behar dituela besteengatik bereizten duena, eta aterkien merkatuan are eta gehiago, izan ere, jada aterki mota asko existitzen dira.

Balorezko proposamenean datza bezeroek gure enpresaren, eta ez beste baten, alde egiteko arrazoi nagusia. Hain zuzen ere, gure bezeroek bertan aurkitu beharko baitute bilatzen duten konponbide edo produktua.

Gure produktuak makina bat abantaila ditu merkatuan daudenekin konparatuta. Lehenik eta behin, aterkiaren euskarria, karbonozko burdinez egina egongo da (horrela ez da gainontzekoak bezain astuna izango). Produktuaren materialak ehuneko handi batean birziklatuak izango dira eta ez diote ingurumenari kalterik egingo. Honez gain, erosleak aukera izango du nork bere aterkia pertsonalizatzeko. Beste era batera esanda, produktuak bezero baten edo bezero segmentu baten berariazko beharretara egokitzuz sortzen du balioa (erosleak aukeratuko ditu aterkiaren kolore eta diseinuak).

Azkenaldi honetan, gakoa da eskala handiko ekoizpena banan-banako beharretara egokitzearekin uztartzea. Horregatik, pertsonalizatutako kolore eta diseinuak ezartzeko aukera izango du nork bere gustuko aterkia lor dezan.

Aipatutako guztiaz gain, balore kuantitatiboa ere izango dute SyRyO aterkiek. Edozein dendetan aurki dezakegun aterki arrunt baten batz besteko prezioa 22€ da. Gure aterkia ekologikoa izan arren, produkzio kostua murriztea lortu dugu. Izan ere behar ditugun lehengaiak honako hauek dira: aterkiaren tela (birziklatua) eta aurrez esan dugun bezala, aterkiaren euskarria, karbonozko burdinez egina.

Ondorioz, prezioa zerbait txikiagoa denez eta kalitate handikoak direnez, merkatuan toki bat egitea lortuko du. Honekin guztiarekin batera merkatuan oso lehiakorra den produktu bat lortuko dugu eta bai gu eta bai eroslea ere irabazten aterako dira.

Produktua merkeagoa denez prezio lehiakorrarekin eta kalitate bikainarekin, kalitate eta prezio erlazio ona lortuko dugu. Unitate bakoitzaren prezioa gutxitu egingo denez, bere eskaria handitu egingo da eta ondorioz produkzioa ere bai.

- **Zein behar edo arazo konpontzen dugu?**

Gure produktuarekin, euri-haize gogorreki erraztasun handiz eusten diegu. Gainera, euskarri modelo berriarekin, lurrean zutik mantenduko dira gure erosotasunari mesede handia eginez.

- **Zerk bereizten gaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?**

Aurreko puntuan azalduta bezala oso aterki aurreratua delako eta ekologikoa da. Honez gain, gure aterkien prezioa besteen aldean baxuagoa izango da. Kalitate ona eskainiko dugu prezio onean.